

11.- IKASLEEN BETEBEHARRAK

Ikaslearen erantzukizuna da helburuko unibertsitatean onartua izateko tramiteak egitea. Ikasleak adi egon beharko du unibertsitate bakoitzak ikasleak onartzeko eskaerak aurkezteko ezartzen dituen epeei (**kasu batzuetan online aurkeztu behar dira**), unibertsitate askok ez dituztelako onartzen epez kanpo bidalitako eskaerak.

Era berean, ikaslearen erantzukizuna da unibertsitatean egingo duen egonaldirako ostatua bilatu eta tramiteak egitea.

Ikasleak ez du tasarik ordainduko helburuko unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen dituelako. Hala eta guztiz, helburuko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari zenbait gastutarako, hala nola aseguratuko, ikasleen sindikatuetan afiliatzeko edo materialerako (fotokopiak, laborategiko produktuak eta abar), baina bertakoikasleen baldintza berberetan.

Ikaslea ezarritako egunean **hasiko da** helburuko ikastegian. Hala egiten ez badu, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da. Egoera hori berehala jakinarazi beharko dio ikasleak Nazioarteko Harremanen bulegoari, horretarako dauden bideak erabilita; izan ere, jakinarazten ez badu, mugikortasun programetako hurrengo deialdiko hautaketa prozesutik kanpo geldituko da.

Ikasleak helburuko unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko du. Hots, **truke programako kreditu moduan matrikulatutako kredituen erdia gainditu beharko du, gutxienez, egonaldian**.

Ikasleak egiaztatu beharko du, horretarako egongo diren epeen barruan, egonaldia egin egin duela eta horren iraupena, beteta egonaldi hasieraren ziurtagiria (**F inprimakia: helduera ziurtagiria**) eta **egonaldi amaieraren ziurtagiria** (helburuko unibertsitateak sinatua eta zigilu Digitala jarrita). Ez badu egiaztatzen egonaldia egin duela, edota iraupena onartutako egonaldiarena baino txikiagoa bada, ez zaizkio aitortuko beste unibertsitatean egindako kredituak.

Ikasleak, gainera, bete eta aurkeztu egin beharko ditu, epearen barruan, bere mugikortasuna dela-eta UPV/EHUk eskatu ahal dizkion dokumentu guztiak (akordio akademikoaren inprimakiak eta abar). Trukearen iraunaldia aldatzen badu (onartutako SICUE mugikortasunaren hilabeteak), **SICUE egonaldia luzatzeko edo laburtzeko eskaera aurkeztu beharko du**. Eskaeraaurkeztekoepa **maiatzaren 9ean** amaituko da (egun hori barne).

Ikasleak eskola jarduera guztietara **joan** behar du eta egonaldiko programazio akademikoko proba eta azterketa guztietara **aurkeztu**.

Ikasleak **C inprimakiaren eranskinean (akordio akademikoa)** adierazi behar du SICUE egonaldiaren luzapena edo laburpena, horretarako egingo diren eremuak beteta (ikaslearen sinadura elektronikoa, jatorrizko eta helburuko unibertsitateetako koordinatzailearena, egonaldiaren hasierako eta amaierako datak, eta onespen data). Inprimaki hori GAUR aplikazioan eta Nazioarteko Harremanen webgunean aurkitu ahal da – SICUE programa 2025/2026.

Ikasleak **GAUR aplikazioan onartu edo uko egin** behar dio emandako plazari, aipatutako epeen barruan. **Plazari uko egiteko inprimakia** ekainaren 7tik aurrera bidali behar du helburukounibertsitatara.

Emandako SICUE plaza onartu aurretik, ikasleak galdetu beharko du, bai helburuko unibertsitatean bai ikasketak egiten ari den UPV/EHUko ikastegian, egin ahal duen **gradu amaierako lana** mugikortasuna egiten ari den bitartean. Mugikortasunari uko egingo dioten ikasleek kontsulta hori egin ez zutelako, zigortuak izango dira eta ezingo dute egin mugikortasunik hurrengo ikasturtean. Gradu amaierako lanaren gaia eta

tutorea esleitu ahal izateko eta lanaren defentsa egin ahal izateko, bete egin beharko dira helburuko unibertsitateak ezarrita dituen baldintzak. Hortaz, mugikortasunean parte hartu eta gradu amaierako lana akordio akademikoan sartu nahi duten ikasleek harremanetan jarri behar dira helburuko unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko baldintzak zeintzuk diren.

Ikaslea **harremanetan jarri beharko da aurretiaz** helburuko unibertsitateko koordinatzailearekin, jakiteko **curriculumeko kanpoko praktikak** egiterik izango duen eta, hala bada, akordio akademikoan sartzekopraktikok.

Garrantzitsua: Helmugako unibertsitateak hartu beharko ditu bere gain SICUE programaren barruan praktikak egingo dituzten ikasleengatik Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren kudeaketa eta kostua.

11.1.-BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Ikasleak ez baditu betetzen betebeharrak, inolako justifikaziorik emateke, ikasketen kontratua bertan behera gera daiteke eta, ondorioz, Nazioarteko Harremanen bulegoak sustatzen dituen mugikortasun programetako hautaketa prozesuetatik kanpo geratu ahal da etorkizunean.